

## **ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko martxoaren 12an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Donostia Lagunkoia hiri planaren barruan, 'Etxeak zahartzen ari den gizarte batean' jardunaldia egin zen 2017ko azaroaren 9an eta 10ean, Miramar Jauregian. Jardunaldietan parte hartu zuten adituek argi eta garbi adierazi zuten etorkizuneko erronka izango dela adineko pertsonak eta dependentzia egoeran daudenak haien etxeetan eta ingurunean zaintzea. Izan ere, jardunaldi horietatik ateratako ondorioetako bat da adineko pertsonen % 87ak etxean bizi nahi duela, baina, soilik, etxeen % 24 dela irisgarria.

Adineko pertsonak haien etxeetan zaintzeko udal zerbitzu garrantzitsuenetako bat Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua da. Gainera, zerbitzu hau gizarte-zerbitzuen giltza edo sarbidea dela esaten dute adituek, arrisku edo dependentzia egoerak detektatzeko orduan.

Otsailaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiak bilera batera deitu zuen etxelaguntza zerbitzuaren hobekuntzen zein finantzazioaren inguruan hitz egiteko. Bilera horretara Gipuzkoako udal eta gizarte zerbitzuetako teknikariak eta zinegotziak gerturatu ginen.

Zerbitzua hobetzeko neurrien artean hurrengo hauek aipatu ziren:

- Zerbitzua urteko egun guztietan ezartzea.
- Prezio publikoaren gehieneko kopurua 15,00 eurotan ezartzea astelehenetik ostiralera.
- Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea ezartzea: 4 ordu edo gehiago.
- Urgentziaz sartzeko modalitatea ezartzea.
- Beste zerbitzu mota batzuk ezartzeko aukera (adibidez, gaueko zerbitzua), eta zerbitzua mendekotasunik ez duten pertsonen zabalteak (adingabeak, bazterkeria egoerak, gaixotasun mentala duten pertsonak...).

Alde batetik, etxelaguntzan egingo diren aldaketek eragina izango dute zerbitzua ematen duten langileengan eta, dagoeneko, sindikatu batzuek informazioa jasotzeko eskaera egin zuten Donostiako aldaketak zeintzuk izango diren jakiteko.

Bestetik, auxiliarren lan konbenioaren negoziaketa dela eta, komiteak hiru aldiz bilera eskatu zuen Gizarte-ekintzako delegatuarekin, baina delegatuak ez zuen erantzunik eman. Horregatik, gaia eraman genuen martxoko batzordeetara eta bertan delegatuak adierazi zigun martxoaren 16rako bilera hitzartua zuela eta aurrerago Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren erregalamentu berria azaltzeko bilera berezi bat antolatuko zutela.

Apirilaren 19ko Gizarte-ekintza kontseiluan, eragile batek berriro galdetu du Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren inguruan eta langileen kezka adierazi du. Delegatuak aipatu du gaiaren inguruko monografikoa maiatzean izango dela. Kontuan hartuta nolako zerbitzua den, oso garrantzizkoa da ariketa hori guztion artean egitea eta iragarri den saio monografikoan langileek beraiek beren ikuspuntua txertatzeko aukera izatea. Horregatik Udal Gobernuak azken hau kontuan izatea ziurtatzea beharrezkoa da. Udal Gobernuak, ordea, ez du horretarako inongo bermerik eman.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Etxez Etxeko Zerbitzuaren erregalamendu berria aztertzeke egingo den “saio monografikoa” delakoan (Gizartekintza Aholku Kontseiluaren baitakoa) zerbitzua ematen duen enpresaren komiteko kideak gonbidatu ditzala, zerbitzua ematen duten pertsonen ikuspuntua zuzenean eta saioan bertan txertatzeko eta kontuan hartzeko.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia